

Gazteon lan osasunaren alde, prekarietatearekin amaitu

Beste urte batez Apirilaren 28a baliatzen dugu, Lan Osasunaren Nazioarteko eguna, hain zuzen, gazteok pairatzen dugun lan prekarietatea salatzeko. Egungo egoera prekarietateak eragiten dituen istripu eta gaixotasunak baina askoz haratago doa. Gainera, azken 12 hilabeteetan hartu diren neurriek, zeintzuk murrizketa sozial eta laboralean eragiten duten, egoera sakondu dute.

Soberan jakina da **gazteok, lan baldintza kaxkarrenetarikoak sufritzen ditugula**: aldi baterakotasun tasa altuak eta behin behinekotasun kronikoa, langabezi tasa hirukoitza, batz bestekoak baino %52 lan sari baxuagoak, sistematikoki erabiltzen diren ez ohiko kontratazioa formulak (bekak, praktikak), lan karga astunak, ordutegi txarrak, gain kualifikazioa, negozioazio kolektiboa oztopatzen duten lanpostuak, ezkutuko ekonomian ematen den enplegua, mugikortasun geografiko altua, azpi-kontratazioa ... Hori gutxi balitz, krisiak egoera zeharo kaskartzea ekarri du, gazteriaren ia erdia lan merkatu araututik kaleratuz eta gainontzekoa kalitate are txikiagoko lan baldintzak onartzera behartuz.

Prekarietate egoera honek okerrera jo du irailean onartutako Lan Erreforma eta iragan urtarrilean adostutako Akordio Sozial eta Ekonomikoarekin. Modu honetan, lan baldintza eta baldintza sozialen prekarizazioa eta murrizketari estalki legala eman zaio. Lanetik bidaltzea errazten da, lanera behin eta berriroko huts egiteetan, arrazoi objetiboengatik egindako bidalketen tasa %5etik %2,5era jaitsiz. Bestalde, eta Osakidetzako medikuaren iritzia kontutan izan gabe, langilearen egoera hurbiletik ezagutzen duena, hain zuzen ere, GSIN-ari langile bati alta emateko aukera ematen zaio. Epe laburreko lan bajetan Mutuen kontrol gaitasunak hazten dira. ETT-ek ere paper garrantzitsuago bat eskuratzen dute eta irabazi asmoa duten enplegu agentzia pribatuak sartzen dira, kontratazioan protagonismo handiagoa edukita. Bitarteko laborala publiko bezala sartzen dira eta jakinak dira kontratazio formula honek gazteengan dituen ondorioak (etorkizun bat planifikatzeko ezintasuna, etengabeko lan aldaketak, ezegonkortasuna, etab.)

Pentsioen erreformak gazteei pentsio duin bat izateko eskubidea kentzen die, pentsio osoa eskuratzeko beharrezkoa bihurtzen baitu 38urte t'erditako kotizazioa, ezinezko baldintza bat egungo egoeran. Gainera, osasunezko bizitzan bi urtetako lapurketa suposatzen du, enpleguaren mesedea jartzen dituenak. Modu honetan gainera erretreta adina 67 urtera arte igotzeak arrisku laboralen aregoatzen ekartzen du.

Lan erritmoak eta prekarietateak eraginda egun **persona gazte batek istripu bat izateko daukan probalitatea helduena bikoizten du** eta istripuen tasa bere horretan dirau. Gainera, gazteengan sistematikoki erabiltzen diren ez ohiko kontratazioa formulak askotan istripu laboralak ikusezin bilakatzen dituzte. Esate baterako, praktiketan edo beka batean gertatzen diren istripuak ez dira estadistiketan islatzen, ezta ere etxeko langileak pairatzen dituztenak. Eta lanbide gaixotasunei dagokionez, denboran zehar arrisku zehatz batzuei aurre egin behar izanaren ondorio direnak (kargen manipulazioa, behartutako jarrera, kutsatzaila kimiko edo biologiak...); egoera kaskar horien ondorioz gaur gazteak garenak izango gara gure osasuna kaltetuta ikusten ditugunok.

Enplegua integraziorako eta auto-errealizaziorako giltzarri izan baino, askotan **isolamendua eta esplotazioa**. Gaur egun bai lanak bai honen gabezia gaixotasunak eta heroitzak eragiten ditu. Honen eskutik gero eta arruntagoak bilakatzen ari diren gaixotasun biologikoak (bihotzekoak, giharretakoak, gastrikoak) eta psiko-sozialak (antsietatea, estresa, adizioak, depresioa) datoz. Guzti honi, bestalde, gazteriak duen %43,1eko langabezi tasa bat egoteak eragiten dituen egoera psiko-sozialak gehitu behar zaizkie.

Ekonomia neoliberalaren lehentasun zerrendan etekinen pilaketa pertsonen bizitza eta osasunaren gainetik kokatzen den bitartean, langileon osasuna eta segurtasuna bermatzeko ardura duten **Lan Agintaritzak, Lan ikuskaritzak eta Osalanen esku hartzea eskasa eta partziala** dela salatu nahi dugu. Tamainako aurrekontua ez izatez gain, aurten Osalanek bere aurrekontuetan jasan duen %43ko murrizketa, patronalari aurre egiteko borondate politikorik ez egotea eta pertsonal gabezia gehitu behar zaie. Ez dute, bestalde, interbenzio politikaririk eta askotan arazoa bera eragiten duten baldintzak mantentzen laguntzen dute. Horregatik, ondoren sinatzen dugun erakunde eta elkarteek gazteen lan baldintzak eta lan osasuna hobetzeari begira, **ondorengo neurriak hartuak izan daitezkeen eskatzen diegu administrazio eta erakunde arduradunei:**

- Erreforma laborala bertan behera uztea
- Lanaldiaren benetako murrizketa
- Enplegu duinaren aldeko apustua, hots, enplegu osasungarria, kalitatezkoa eta ziurra
- Ez ohiko kontratazio formulen eta enpleguaren baldintzen gaineko ikuskaritza eta kontrola areagotzea
- Azpi-kontratazioa eta behin behinekotasuna mugatzea
- Zaintza lanen eta lan erreproduktiboaren errekonozimendua eta arautzea
- Esku hartze handiagoa erakunde arduradunen partetik gaixotasun laboralen detekzio eta tratamenduan
- Inspektzioarako, kontrolerako eta aholkularitzarako baliabide gehiago
- Lan ikuskaritzaren esku hartzea laneko istripu guztietan
- Pentsioen erreforma gelditzea
- lanaren desintentsifikaziorako neurriak
- Lanpostu bat betetzeko eskatzen den kualifikazioa eta hau garatzeko beharrezkoa denaren arteko oreka mantentzeko kontrol mekanismoak
- Enpresek, gazteen parte hartze laborala eta sindikala ahalbidetzea, horretarako baldintzak eta bitartekoak eskainiz